

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA**564/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea María José Fernández Alonso Funtzio Publikoko zuzendari kargutik kentzea**

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 5eko 513/2023 Erabakiaren bidez, María José Fernández Alonso izendatu zen Funtzio Publikoko zuzendari karguan.

Bat etorri Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8 eta 24 artikuluetan eta Foru kargu publikoen jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak 9 eta 11 artikuluetan xedatutakoarekin, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio Foru Aldundiko goi karguak eta behin-behineko langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere kasuan kasuko saileko diputatuak hala eskatuta.

Horregatik guztiagatik, lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. María José Fernández Alonso Funtzio Publikoko zuzendari kargutik kentzea, egindako zerbitzuak eskertuz.

Bigarrena. Erabaki honek 2025eko urriaren 9tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

*Lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR